# Denbora-

## 1 Osatu marrazkia

Marrazkia amaitu baino lehen amaitu da eskola ordua, eta korrika joan da Joseba. Marrazkiaren beste erdia marraztuko al duzu?






## 2 Giltzak

Oparia ezkutatzen duen kutxaren bi giltza ditu Kepak. Multzoko zein giltzak zabalduko dute kutxa?

Erantzunak: **2.-** 4 eta 5. **3.-** Martinek 3.175 kilo jaso ditu, eta Pellok 3.150. Beraz, Martin da irabazlea. **4.-** e eta i.

## 3 Harri-jasotzaileak

Martin eta Pello ez dira nekatzen, eta etengabe ari dira apustuak egiten. Ea oraingoan nork irabazi duen.






# -pasak



## 4 Bikiak

Billete faltsuak egiten aritu dira Txanpon jauna eta haren laguntzaileak. Bi billete sorta berdin egin dituzte. Zein?




## 5 Labirintoa

Jokalaria gogor sartu dela eta, txartel horia atera nahi izan dio epaileak, baina txartelak zelaian galdu ditu. Zein bide hartu behar du txarteletara iristeko?




# Jolasa

## Natura, grabagailuaren barruan

Isildu, eta entzun arretaz inguruko soinuak. Asko dira, ezta? Grabatu, eta ea zure lagunek ezagutzen dituzten.








**1** Zoaz txango bat egitera etxe aldameneko parkera edo mendira. Ez ahaztu, ordea, grabagailua. Jaso entzuten dituzun hotsak grabagailuan: errekaren soinua, txoriena, txakurrena...

**2** Haurrak jolasean, haizearen soinua, hostoak mugitzen... Nahi beste hots graba ditzakezu. Soinu bakoitza 20 segundoz grabatu behar duzu, gutxienez.

**3** Hots guztiak gordeak dituzunean, deitu lagun koadrila bati. Lagun bakoitzak papera eta arkatza izango ditu eskuan. Banan-banan, txangoan jasotako soinuak jarriko dizkiezu. Entzundako soinuen jatorria asmatzea da lagunen lana. Ea nork asmatzen dituen gehien.